

Arrisku laboralen prebentzioari buruzko foroa urriaren 25ean Sandiusterrin

■ Enpresetatik, Lan Inspektiotik, Osalanetik, sindikatuetatik eta Justizia mundutik etorriko dira hizlariak ■ Ibarlas enpresa elkarteak antolatu du ■ Izen emateko 943 335399 telefonora deitu. Debalde da.

LANEKO arriskuen prebentzioari buruz hitz egingo dute datorren ostiralean Herna-nin, sektore ezberdinetako zenbait adituk. Goizeko 09:00etatik arratsaldeko 19:00etara da foroa. Antolatzailea Ibarlas enpresa elkarte da. Juan Bautista Vazquez Ibarlaseko arduradunak Kronikari adierazi dionez foroaren helburua da arrisku laboralen prebentzioan gauzak nola dauden aditzera eman eta jendea kontzientziaztea. Horretarako gai nagusiaren bueltako atal asko tratatuko dituzte: ardua eta isun penalak, *Mobbing*-a, makinaren segurtasuna eta abar, eta galderak egiteko tarreak ere izango dira.



Arriskuan lan egiten dutenak kontzientziaztea da helburuetako bat.

27 enpresen elkarte
Ibarlas elkarte oraintsu sortua da eta bere asmoa Hernaniko enpresak elkartu eta bideak erraztea da. Oraingoz prebentzioan eta kalitatean lan egiten dute, baina, aurre-

rago zerbitzua zabaltzeko asmoa badu Ibarlasek. Elkarre hau sortu izanaren oinarria zera da, enpresa txikiek baliabide gutxi dutela seguritate eta kalitate gauzetan legeak eskatzen dizkien atal guz-

tiak aldiro berritzen joateko, baina, elkartu ezker indar gehiago dute eta teknikoak eta profesional taldea banatu egin lezakete, eta kondizio ekonomiko hobean, gainera. Oraingoz, Hernaniko 27

enpresa daude elkarte barruan: 400 bat langile.

Ostiralekoa da antolatu duten lehen foroa, baina, horrelako gehiago egiteko asmoa badu Ibarlasek. □



Auzo elkarteetako ordezkariak Auzotarrak Federazioak egindako bilera batean.

Auzo elkarteek kurtso berria hasteko bilera dute astelehenean

AUZOTARRAK Auzo Elkarten Federazioak astelehen honetan (urriak 21) bilera egingo du 2002-03 kurtso berriari heltzeko, eta auzo elkarte guztiak konbokatatu ditu bilerara. Auzotarrak Federazioak 4 puntuko gai ordena du. Honako hauek dira: auzoak zer egoeretan dauden gaur egunean, Udalak auzo elkartei bidalitako Ordenantzak, auzo elkarteek Udaletxetik jasotzen dituzten subentzioak eta Kronikari diru laguntza. Bilera Karabelen izango da, 19:30etan. □

EMAKUMEAREN ZENTRUA

Emakumearen eskubideei buruz hitzaldia asteartean

EMAKUMEAREN zentruak hitzaldia antolatu du *Giza Eskubideak emakumearen eskubideak* izenburua duena. Kudela taldearen laguntzarekin. Hitzaldia datorren asteartean da, 16:15etan, Emakumearen zentruan. Irekia da. □

Bandaren kontzertua gaur Arkupetan

HERNANIKO bandak kontzertua emango du gaur Udaletxeko arkupetan, Manuel Sagarnaren zuzendaritzapean. Lau obra eskeiniko dituzte: M.Martinez *Andres Urruzola*, Pablo Sorozabalen *La del Manolo de Rosas*, G. Gimenez *La Torre del Oro* eta V. Beobideren *Rapsodia Vasca*. Kontzertua eguerdiko 13:00etan da. □

MENDIRIZ MENDI

Gipuzkoako Mendi Txapelketa umeentzat

DATORREN igandean, Gipuzkoako 15garren Mendi Txapelketa jokatu da Azpeitian. Txapelketa umeentzat da eta Mendiriz Mendik irteera antolatu du 08:00etan. Izena emateko: elkarteko bulegoan, ostirala arte, 20:00-21:00 bitartean. Prezioa: 2 euro umeek, 4 helduek.

ZINEA BITERIN

'Stuart Little II' eta 'Operación Triunfo'

GAUR Biterin 2 filme botako dituzte: 17:00etan *Stuart Little II*; 19:30etan *Operación Triunfo*. □

'Trakets' Oialumen

OIALUMEN dantzaldia dago gaur, igandero bezala. 19:30etan hasita, *Trakets* taldeak alaituko du giroa. □



SANTA BARBARA

PEUGEOT



PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

Peugeot 306 - HDI,	aire egokitua	SS-BF
Volvo 850	TDI	SS-AW
R-Megane Coupe Sport	1.4	SS-BJ
Citroen AX	5 ate Diesel 1.4	VI - L
SEAT Ibiza -	3 ate Diesel 1.8	SS-AJ
Opel Corsa	5 ate 1.2	SS-AK
Ford Courier	Diesela	SS-AS
Renault Express	Diesela	SS-AS
Mercedes Furgoneta	Diesela	SS-AH
Land Rover luzea	Dieselaeta hainbat kotxe merke.

EDARITEGIA

JOMARI

Kale Nagusia, 7
☎ 55 00 32
HERNANI

BEGIRA OPTIKA



URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI

BOLEIBOLA

Hernanik 1-3 galdu Laredoren kontra

Alfred Cerdanen mutilek azken arte eutsi zioten partiduari.

PARTIDU gogorra zuen atzo EHU-Hernanik Laredoren kontra, eta galdu egin zuen 1-3. Cerdanen mutilek gogor eutsi zioten partiduari azken arte, baina, Laredokoen esperientzia haundiagoa dutela erakutsi zuten.

Bukaera arteko burruka

Lehenengo set-a Laredokoen irabazi zuten 21-25; bigarrena hernaniarrentzat izan zen 25-10; hirugarrena izan zen justuena, baina, Laredok atera zuen 22-25; azkena eta laugarrena erraz xamar irabazleentzat 25-17.

Cerdanek gehiago espero

Alfred Cerdan UPV Hernaniko entrenatzaileak Kronikari esan zionez, partidua irabazteko aukerak bazituzten, baina, kanpoko adina eta esperientziak erabaki zuen auzia. Esan zenez "gurek teknika haundiagoa daukate eta hori edozeinek



Cerdanen mutilak azken set-asi baino lehentxeago.

onartuko luke, baina, urduri jartzen dira eta horrela ez dago Laredo bezalako talde bati irabazterik. Jende haundia eta heldua daukate, ikasia eta esperientzia daukana".

Jendea armailetan

Atzoko partiduan jende pixka bat azaldu zen Hernaniko taldea animatzera. Dena dela, arduradunek dei egiten dute hurrengoetara ere azaltzeko. □



Atzoko prentsaurrekoan, Juanjo Uria, Elias Miner eta Maritxu Sanz.

ELIAS MINER -ETXERAT ELKARTEKO KIDEA:

"Legea betetzea exijitzen dugu eta preso guztientzat eskubide berberak"

■ 'Noizko?' egunaren bueltan atzo eman zuten prentsaurrekoa Plaza Berrian

■ Hernaniko 30 taldek eman dute 'Noizko?' egunaren aldeko firma.

KONDENAREN 3/4ak beteak dituzten presoen askatasuna eskatzeko *Noizko?* eguna antolatu dute Etxerat elkarteak eta 3/4 plataformak. *Noizko?* eguna herriz herri ari dira egiten eta urriaren 27an egingo da Hernanin. Horren bueltan, ekintza asko antolatu dituzte aurreko egunetarako. Horien artean: mendi martxa, bertso afaria, firma bilketa eta abar.

Prentsaurrekoa atzo

Atzo prentsaurrekoa eman zuten Plaza Berrian, *Noizko?* egunaren aldeko babesa eman duten taldeek. Dagoeneko Hernaniko 30 talde edo elkarrek eman dute babesa, eta han izan ziren talde horien ordezkariak: Mertxe Etxeberria alkatea, Berriak elkarte lehendakaria, LAB, ESK, Zutik, 3/4 plataforma, Etxerat, Xabier

Arnaizen senideak eta Agustin Ezponda eta Juanjo Uria alkate ohiak. Hain justu, Juanjo Uria izan zen prentsaurrekoari bukaera eman ziona, eta hernaniar guztiei dei egiten zien *Noizko?* egunean parte hartzeko.

Gauean bertso afaria izan zen Elur Txori elkartearen. Kantuan: Legarreta, Zerain, Agirre eta Mendiluze. Afariko txartel guztiak saldu ziren. □

HITZ BITAN

MUSIKA ASTEA

'Astintzen' taldeak eskerrak eman ditu. Musika Astea antolatu duen *Astintzen* taldeak eskerrak eman dizkie herriko tabernariei, Berriak elkarteari, Tilos inguruan bizi diren guztiei eta Hernaniko Kronikari. Era berean, antolatutako ekintzetan parte hartu duten guztiak ere eskertu ditu *Astintzen* taldeak. Bestalde, igandean errifan sortea izan zen eta saritutako zenbakia hau da: 0622. Egokitu zaionak deitu dezala telefono honetara: 943-332937.

ATLETISMOA

Behobia-Donostian izen emateko epea zabalik. BEHOBIA-Donostia kross herrikoia azaroaren 10ean jokatuko da, igandearrekin. Karreran parte hartzeko inskripzioa gaurtik azaroaren 2 arte egin liteke 18 euroan (5 euro txip-aren fidantza moduan jartzen dira eta gero bueltatu egiten dituzte). Azaroaren 2tik aurrera eman liteke izena, baina, lekurik geratzen bada soilik.

Hernanin izena eman nahi duenak Mitxel eta Xarma kirol dendetan egin lezake: 943 555852. Internetez egin nahi duenak: *www.cdfortuna.com* helbidean. Azaroaren 2tik aurrera CD Fortunaren lokaletan bakarrik egin liteke inskripzioa: Pio Baroja kiroldegian edo alde zaharrean, Kanpandegi kalea 1-ean.

PELOTA

Manzidor eta Martinezek partidua zaila gaur kiroldegian. Manzidor eta Martinezek Gipuzkoako txapelketako bigarren partidua dute, gaur, Añorgako *Kuku* taldearen kontra. Talde honetan Lizartzako bi neskek jokatzen dute: Itxaso Urkizu eta Nagore Arozena. Lizartzarrek 16-17 urte dituzte eta Afizionatuetan jokatzen dute dagoeneko. Rufino arduradunaren ustez, hernaniarrek irabaziko dute indarrez eta esperientziaz gehiago direlako. 10:30etan kiroldegian.

MAHAI TENISA

Hernani-Lekaenea gaur kiroldegian. Liga Autonomikoan Easo-Hernanik gaur jokatuko du lehenengo partidua, Irungo Lekaenea taldearen kontra. Hernaniarren helburua goragoko mailara igotzea da aurten, beraz, irabazten hastea hobe izango dute. Partiduak 10:00etan jokatuko dira, Hernaniko kiroldegiko pista nagusian.

FUTBOLA

Hernanik 2-0 irabazi, eta hirugarren garaipena. Gorengo mailako taldeak irabazi egin zuen atzo ere, Amaikak Bat taldearen kontra. Bigarren partidua irabazi dute segidan eta badirudi taldea konfidantza hartzen ari dela. Datorren astean Aretxabaletaren kontra du, kanpoan.

Emakumezkoek, gaur, Usurbilen kontra, Zubipen, 12:00etan.

XAKEA

Hernani B-k 3-1 irabazi Hernani A-ri. Atzo jokatu zuten Hernaniko bi taldeek Gipuzkoako 2 mailako lehen jardunaldia. Elkarren kontra jokatu zuten eta Hernani B-k irabazi zituen partida gehiena. Horrela joan ziren partidak: Ijurko 1-Estevez 0; Navascues 1-Esnaola 0; Bereziartua 1-Garmendia 0; eta Orellana 0-Plaza 1. □

HERIOTZAK

Jose Mari Almandoz Huizi
Atzo hil zen 92 urte zituela

Hileta elizkizunak bihar, astelehena, arratsaldeko ZAZPIETAN Juan Bataiatzailea Parrokian.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

►Egunez: Correa
Perkaiztegi 8
☎ 943 551933
►Gauez: Correa
Perkaiztegi 8
☎ 943 551933

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai. Kardaberaz kalean, Pana parkerako bistak, 2 gela, sala, sukaldia, 2 komun eta aparkatzeko plaza erreserbatua. ☎ 646 47 02 58

Pertsona bat behar dugu tabernako sukaldean lan egiteko. Interesatuak deitu ☎ 943 55 67 06

Opel Corsa 1.2 daukat salgai. SS-AL matrikula du eta 110.000 km dauzka ☎ 943 55 72 06

Ford Transit furgoneta daukat salgai. Furgoi luzea da, aire egokitua eta airbag-arekin. Matrikula SS-BB. Prezioa 8.000 euro. ☎ 655 74 92 54